



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko abuztuaren 11

73. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—9/2006 Foru Legea, uztailearen 5ekoa, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzen duena. Akats zuzenketa (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Bidasoa ibaian ugalketarako bideratutako izokin-arrautzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Galdera, Fiteroko aztarnategiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuak Soria-Castejón trenbidearen gutxieneko mantentze lanak bermatze aldera egin dituen urratsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, Uhartan arte plastikoetarako eraikin bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, Ultzamako bide-sareari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Galdera, Farmazialarien Elkargoak erregistroak sortzeari eta datuak jasotzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Behin-behineko izendapena (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

9/2006 Foru Legea, uztailaren 5ekoa, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzen duena.

AKATS ZUZENKETA

Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 9/2006 Foru Legean akats bat antzeman da. Foru lege hori 2006ko uztailaren 11ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona zuzenketa:

Zioen azalpenaren azkenengo lerrokadan honela esaten du:

“..., bidezkoa da Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzea,”

Eta honela esan behar du:

“..., bidezkoa da Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea berriz aldatzea,”

Iruñean, 2006ko abuztuaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Bidasoa ibaian ugalketarako bideratutako izokin-arrautzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Bidasoa ibaian ugalketarako bideratutako izokin-arrautzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 23ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Bidasoa ibaiaren ibilbide nagusiko erdiko eta goiko tarteetan izokinkumeak birsartzeari buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna, honekin batera doazen tauletan egituratua, haietan jasota baitago eskaturiko informazioa.

1. taula: 1989tik 2005era bitarteko izokin-ekoizpena Mugairiko arrain-haztegian: Bidasoako izokin autoktonoengandik lorturiko arrautza enbrioi-tuen kopurua eta beste herrialde batzuetatik inportaturiko arrautzen kopurua, horietatik jaiotako izokin-kumeen kopurua, hazkuntza-urte bakoitzean azkenik lorturiko aleen kopurua, haien garapen-egoeraren eta amaierako erabileraren arabera.

2. taula: Bidasoa ibaian urtez urte birsarturiko ale kopurua, garapen-egoeraren arabera: arrautzak, izokinkumeak, izokin gazteak.

3. taula: Bidasoa ibaian eta haren ibaiadarretan, ibai tarte ezberdinetan, 1989tik 2005era birsarturiko izokin aleen guztizko kopurua (izokinkumeak eta izokin gazteak).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 27an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

1989tik 2005era bitarteko izokin-ekoizpena Mugairiko arrain-haztegian. 1. TAULA

URTEA	Stockaren jatorria	Sorturiko arrautzak	Jaiotako arrautzak	Birsarturiko arrautzak	Birsarturiko izokinkumeak	Birsarturiko izokin gazteak	Gipuzkoako F.A.ri saldutako arrautzak	Gipuzkoako F.A.ri saldutako izokinkumeak	Bizkaiko F.A.ri saldutako arrautzak	Bizkaiko F.A.ri saldutako izokinkumeak
1989	Bidasoa	100.000	95.500	8.000	30.500	3.669				
1989	Islandia		240.000		39.400	4.041				
1990	Bidasoa	66.500	52.800		32.100	10.102				
1990	Islandia		150.000	58.000	87.400	8.793				
1991	Bidasoa	95.600	83.200		45.600	12.563				
1991	Islandia		150.000		48.900	12.510				
1992	Bidasoa	116.300	107.200		57.300	20.086				
1993	Bidasoa	179.300	174.800	22.400	86.500	8.300	28.800			
1994	Bidasoa	55.000	50.700		27.750	8.530		4.200		
1995	Bidasoa	173.600	118.500		8.800	4.200	19.000			
1996	Bidasoa	94.000	68.500			6.650	5.000			
1997	Bidasoa	143.900	135.000		102.320	9.230		3.000	18.000	4.000
1998	Bidasoa	75.200	49.900		22.900	5.908				
1999	Bidasoa	51.300	40.000		21.159	8.667				
2000	Bidasoa	59.700	51.800		34.518	9.876				
2001	Bidasoa	135.600	110.200		79.010	8.678				
2002	Bidasoa	160.555	141.874		83.910	10.676			27.000	
2003	Bidasoa	529.620	373.731		231.703	7.906	40.000	54.500	30.000	
2004	Bidasoa	170.177	119.159		81.387	9.413	12.000			
2005	Bidasoa	143.131	103.779		68.758	11.820	5.300	4.000		
Guztira	Bidasoa	2.349.483	1.876.643	30.400	1.014.215	156.274	110.100	65.700	75.000	4.000
	Islandia		540.000	58.000	175.700	25.344				

Bidasoako arroan urtez urte birsarturiko izokin aleak. 2. TAULA

URTEA	ARRAUTZAK	IZOKINKUMEAK	IZOKIN GAZTEAK
1989	8.000	69.900	
1990	58.000	119.500	7.710
1991		94.500	18.895
1992		57.300	25.073
1993	22.400	86.500	20.086
1994		27.750	8.300
1995		8.800	8.530
1996			4.200
1997	„	102.320	6.650
1998		22.900	9.230
1999		21.159	5.574
2000		34.518	9.001
2001		79.010	9.876
2002		83.910	8.678
2003		231.703	10.676
2004		81.387	7.906
2005		68.758	9.413
2006			11.820
Guztira	88.400	1.189.915	181.618

l bai tarte bakoitzean 1989tik 2005era bitarte birsarturiko izokin aleen guztizko kopurua (izokinkumeak eta izokin gazteak)

3. TAULA

Kodea	Ibaia	Tartea	Izokinkumeak	Izokin gazteak
2710	Baztan	Izpegiko portutik Erratzura (errepideko zubia)		476
2720	Baztan	Erratzutik (errepideko zubia) Arizkungo Bergarako zubira	54.011	
2730	Baztan	Arizkungo Bergarako zubitik Oronozera (errepideko zubia)	180.972	
2740	Bidasoa	Oronoztik (errepideko zubia) Doneztebera (presa)	177.516	
2750	Bidasoa	Doneztebetik (presa) Igantziko bentetara (errepideko zubia)	186.469	665
2760	Bidasoa	Igantziko bentetatik (errepideko zubia) Berara (Fundizioetako presa)	55.523	17.319
2770	Bidasoa	Beratik (Fundizioetako presa) Enderlatsara (zubia)	31.261	143.008
2756	Behobia		1.500	
2757	Bustiolaran		1.500	
2775	Zalain		18.691	
2776	Montoia		2.640	
2777	Barraka		11.360	
2803	Aiansoro		25.950	
2822	Zeberia		8.500	
2830	Ezpelura		54.572	8.743
2870	Ezkurra	Ezkurra portutik Zubietara (zubia)	24.832	
2880	Ezkurra	Zubietatik (zubia) Doneztebera (bokalea)	95.502	11.407
2893	Iraun		2.000	
2894	Iruribietara		27.612	
2900	Latsa	Bidasoako bokaletik Donibane Iturrira (zubia)	18.500	
2902	Latsa	Donibane Iturritik (zubia) Arantzara (Angulen presa)	84.498	
2907	Garata		5.270	
2910	Tximista	Bidasoako bokaletik Etxalarrera (presa)	10.700	
2915	Tximista	Etxakar (ur bateratzea) Sarri-Arboztako ur-bateratzerara	63.358	
2930	Onin	Iturritik Lesakara (Laminazioetako zubia)	5.600	
2933	Onin	Lesakatik (Laminazioetako zubia) Bidasoara (bokalea)	13.204	
2940	Zia		26.874	
2955	Endara		1.500	
Guztira:		+	1.189.915	181.618

Galdera, Fiteroko aztarnategiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Fiteroko aztarnategiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 5eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Fiteron kokaturiko Peñahiteroko aztarnategiarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Ekainaren 19an, Kultura Zuzendaritza Nagusiak 339. zenbakiko ebazpena eman zuen, Nafarroako Gobernuak Ondare Historikoaren Zerbitzuko Ondasun Higigarri eta Arkeologia Atalaren eta Nafarroako Kultura Kontseiluko Arkeologia Batzordearen txostenei jarraituz. Ebazpen horren bidez baimendu egin zen Peñahiteroko aztarnategiari buruz Manuel Medrano Marqués jaunak eta Fiteroko Udalak aurkezturiko proiektua, zeinak oinarritzko sendotze-ekintza batzuk proposatzen baititu aztarnategia agerian geratu ahal izateko. Proiektu horrek bere barruan hartzen ditu egituren saneamendua eta lehengoratzea, bai eta haien babeserako harresien altuera igotzea ere.

Bestalde, txosten horietan ere oinarrituz, ez zaio baimenik eman altuera igotzeko bigarren proiektuari, zeina beranduago jaso baita eta egitasmo gehigarri gisa jasotzen baitu harresi, dorre eta ilo-

biaren altuera igotzea eta industria-gelak berreraikitzea. Izan ere, proiektu horrek ez ditu betetzen xede horretarako beharrezkoak diren baldintzak.

Hala dio Nafarroako Gobernuak Ondare Historikoaren Zerbitzuko Ondasun Higigarri eta Arkeologia Atalak emandako txostenak, zeinaren arabera:

"Ondare Historikoaren Zerbitzuak afera horri buruz behin baino gehiagotan azaldutako jarraibideak aplikatuz, saihestu beharrezkoa da egitura arkeologikoak in situ berreraikitzea, salbu eta jatorrizko dokumentazio eta material eztabaidaekin baldin badaude, lehengoratzea ahalbidetzen dutenak, ez bada arriskuan jartzen aztarnen kontserbazioa, eta behar adina aztarna hondeatu berreraikigabe baldin badaude, halako moldez non erakutsi eta etorkizunerako geratu ahalko diren, aztarnen jatorrizko egoeraren berme gisa. Peñahiteroko kasuan ez dira hiru baldintza horiek betetzen. Bestalde, gaur egun aurri moduan iritsi zaiguna ulergarri egiteko behar adinako baliabide grafiko eta infografiko ere badago".

Hori guztia dela-eta, hain zuzen ere Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak aztarnategi horri ematen dion garrantziarengatik, ez da baimenik emanen berreraikitze-proiektu horretarako, foru erkidegoko ondare arkeologikoa babesten dela zaintzeko eginkizuna duten teknikarien irizpideen kontra baitoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 29an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Gobernuak Soria-Castejón trenbidearen gutxieneko mantentze lanak bermatze aldera egin dituen urratsei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Nafarroako Gobernuak Soria-Castejón trenbidearen gutxieneko mantentze lanak bermatze aldera egin dituen urratsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 30ko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Soria-Castejón trenbidea dela-eta emandako urratsei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

1.- Egin al du Nafarroako Gobernuak azken hamar urte hauetan urratsen bat Renfen eta gaur egun trenbide azpiegituren arduradunarekin, azpiegituraren gutxieneko mantentzea bermatzeko?

2.- Egin al du Nafarroako Gobernuak urratsen bat trenbide azpiegituren arduradunarekin linea hori administratzaile horren azpiegituren mapatik ken ez dezaten?

3.- Aurreikusia ote du Nafarroako Gobernuak trenbide azpiegituren arduradunarekin edo Sustapen Ministerioarekin urratsen bat egitea galera hori berdintzeko eta aipatu linea trenbide zirkulazioa izateko moduan uzteko, XXI. mendeari dagokion bezala?

Erantzuna:

1, 2 eta 3: Soria-Castejón trenbidea 1996ko abenduaren 1ean itxi zuten. Egun haietan, orain dela bederatzita urte eta erdi, Nafarroako Gobernuak Sustapen Ministeriora eta Renferara jo zuen, linea horren ustiapenaren gaineko eskumena daukaten bakarrak izaki, linea ixtearen arrazoiez galdetzeko. Une hartan, datuek begi-bistan uzten zuten, inolako zalantzarik gabe, linea horretako trafikoa apala zela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko uztailaren 20an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Uhartan arte plastikoetarako eraikin bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Uhartan arte plastikoetarako eraikin bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Uharteko Udalak sustaturiko arte garaikideko zentroarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Arte garaikideko zentroa Nafarroako Gobernuak oso aintzakotzat hartua duen proiektu bat da.

Jadanik 2000. urtean ekin zitzaion arte garaikideko zentro bat abiarazteko prozesuari. Zentro hori, Beaumont Fundazioaren bilduma ardatz nagusi gisa izanik, Iruñeko Gotorlekuan zen instalatzekoa.

Horretarako, akordio bat negoziatu zen, hiru aldekin sinatu behar zutena: Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak eta Beaumont Fundazioak. Helburua zen azken horren arte garaikideko bilduma izan zedila Iruñeko Gotorlekuan instalatzekoa zen zentro honen ardatz nagusia.

Azkenean, proiektu hori ez zen gauzatu.

Harrezkero, arte garaikideak gobernuaren kultur politikan bere tokia izaten segitzen du, eta horren adibide egokia dira garatzen ari diren proiektuak:

Autonomia erkidego gutxiak daukate Jorge Oteiza Museoaren itzal eta garrantzia duen museorik; hain zuzen ere, azken urteotan zehar orain arte inoiz ez bezalako bultzada eman zaio museo horri, eta haren jardura biziki areagotu da. Bultzada hori hedatzen da hala esparru zientifikora, Jorge Oteiza katedra sortuz, nola esparru praktikora; izan ere, ikastaroak, mintegiak eta jendarteratze jardura osagarriak antolatzen dira, museoko funtsen erakuste-lan hutsa gainditzen dutenak.

2003tik aurrera arte (4 urte), Jorge Oteiza Fundazioak 7.400.000 euro jaso ditu Nafarroako Gobernutik, eta katedrak (2004-2005) 1.200.000 euro.

Kultura eta Turismo Departamentua gauzatzen ari den helburu eta ekintzen artean daude arte

garaikidea Foru Komunitatean sustatu eta garatzeko, nafar artista garaikideen lanak erosiz (85 artelan 2003. urteaz geroztik), adierazpide plastiko honi eskainitako erakusketak antolatuz (17 erakusketa 2003. urteaz geroztik), zeinetara 55.000 nafar baino gehiago joan baitira, edo mundu osoko kritiko eta aditurik entzutetsuenen partaidetza izan duten hitzaldiak eta azterketa-jardunaldiak antolatuz.

Bestalde, arte garaikiderako bulego bat garatzeko lanak abian dira, eta Nafarroako artista garaikideei eta beren lanei buruzko informazioa biltzeko lan esker ga egiten ari da. Gainera, aipaturiko bulegoak etengabeko elkarrizketan jarduten du sortzaile guztiekin, Nafarroako artegintzaren errealitatearen taupada ezagutzeko eta etorkizuneko proiektuak aztertzeko.

Uharteko arte garaikideko zentroari dagokionez, Kultura eta Turismo Departamentua zain dago Uharteko Udalak noiz zehaztuko duen kultur dotazio horren proiektu museografikoa eta kudeaketakoa ezartzeko modua, zeina aurretiazko eta nahitaezko urratsa baita, ondorioztatzeko Nafarroako Gobernuak laguntza edo osagarri bat ematea komenigarria den.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 29an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Ultzamako bide-sareari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Ultzamako bide-sareari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 30eko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Ultzamako bide-sareari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

1.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak hobekuntza lanak egitea Ultzamako errepideen sarean? Baiezkoan, zer lan egingen dira?

2.- Nafarroako Gobernuak asmoa al du leku horretako bidegurutze arriskutsuak hobetzeko, ispiluak jarritz nahiz bestelako neurriak hartuz?

Erantzuna:

1.- 2002-2009 urteetarako bigarren errepide plan zuzendariak, zeina Nafarroako Parlamentuko Herrilan Batzordeak 2002ko azaroaren 12an onetsi baitzuen, ezartzen du zein diren Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak bide-

azpiegiturak hobetzeko egin behar dituen jarduketak. Ultzamako eskualdeari dagokionez, hobekuntzak aurreikusten ditu N-121 A errepidean, eta horietatik garrantzitsuena Ostizko saihesbidea da.

Ultzamako eskualde eta toki sarerako ez da eraberritze-jarduketa berezirik aurreikusten; soilik mantentze arrunta eta zoruen sendotzea, urteroko kanpainetan egin ohi den moduan. 2006an zehar, aurreikuspena da "NA-411: A-15-Ostiz" errepidean fresaketa eta zoru-konponketa lanak egitea 0 + 000 eta 17 + 614 kilometroen artean.

2.- Galderaren sarreran baieztatutakoaren kontra, Zainketa Zerbitzuak urtero metodologia tekniki homologatu eta frogatu baten bitartez egiten dituen trafikoko eta istripu azterlanek, Nafarroako errepideen sareko istripu ugariko tarteetarako jarduketak planak prestatzeko oinarri gisa hartzen direnek, agerian uzten dute Ultzamako errepideetan ez dagoela istripu ugariko tarterik, ez eta arriskutsua izan litekeen tarterik ere. Dena den, NA-411 errepidean eta Ultzamako zenbait toki-errepideetan zenbait zeharbide daude, eta haietan lanak egiten ari dira, toki entitateekin koordinaturik, trafikoa moteltzeko eta oinezkoak babes-teko bide goratuak ipintzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko uztailaren 20an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Farmazialarien Elkargoak erregistroak sortzeari eta datuak jasotzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Farmazialarien Elkargoak erregistroak sortzeari eta datuak jasotzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 29ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Farmazialarien Elkargoak erregistroak sortzeari eta datuak jasotzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Osasun Departamentuak ez zekien parlamentu-galderak aipatzen dituen gaiei buruzko erregistroak sortu direnik.

2.- Bi fitxategi horien sorrera, Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzarren 2006ko apirilaren 5eko erabakiaz gauzatu dena eta maiatzaren 1eko 52. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman dena, guztiz bidezkoa eta egokia da Norberaren datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetzeko, halako datuak jasotzen baititu.

Fitxategian deklaraturako ezaugarriak eta haritarako ezarritako erabilerak aztertu ditugu, eta aztertu ditugu, halaber, farmazia bulegoak ituntzeko baldintzak ezartzen dituen esparru-akordioari –Nafarroako Gobernuaren 2002ko maiatzaren 13ko erabakiaz onetsia– egokitzen ez zaizkion eta aipatu abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren araberrakoz ez diren lagapenak dituzten entitateen aurreikuspenak, kontuan hartuta esparru-akordio horren arabera errezetak mekanizatuz lortzen den informazioa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakturaziorako baino ezin izanen dela erabili, eta beste edozertarako erabili nahi izanez gero erakunde autonomo horren berriazko baimena beharko dela. Hori guztia ikusita, ez dago jasota inongo berriazko baimenik eskatu denik, eta, horrenbestez, ez da halakorik eman. Hori dela eta, ezin da informazio hori erabili ezarritakoaz kanpoko beste ezertarako.

3.- Behin aipatu fitxategi horien deklaraturako ezaugarriak ezagututa, Osasun Departamentuak Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialera jo du, aurreko atalean azalduetako iritzia agertzeko, eta, horrenbestez, ituntzeko baldintzei buruzko esparru-akordioan ezarritakoak bete dezan exijitzeko, eta ohartarazi dio ezen, hala egin ezean, gertatutakoak Datuak Babesteko Agentziari jakinaraziko dizkiola.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 15ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa.

Behin-behineko izendapena

Nafarroako Comptos Ganberako legelari izateko bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zuen lehendakariak 2005eko apirilaren 1eko erabakiaren bitartez. Oposizio-lehiaketa amaituta, lanpostu horietarako ondokoak izendatzeko proposamena argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (80. zenbakia, 2006ko uztailaren 5ekoa) eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (62. zenbakia, 2006ko ekainaren 23koa): Gemma Angélica Sánchez Lerma andrea, txanda irekian, eta José Luis Ezquerro Royo jauna, igoera txandan. Deialdiko 8. oinarrian xedatuari jarraikiz eta izendatutakoek 7.3 oinarrian ezarritako agiriak aurkeztu dituztelarik, bidezkoa da proposatutako izangaiak behin-behinekoz izendatzea, lanpostuaren jabetza behin-behinekoz har dezaten eta deialdiko 9. oinarrian ezarritako praktikaldia, urtebetekoa, has dezaten.

Hona, bada, lehendakariaren

ERABAKIA

Bat.- Gemma Angélica Sánchez Lerma andrea eta José Luis Ezquerro Royo jauna Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario izendatzea, behin-behinekoz, legelari lanpostuetan.

Bi.- Deialdiko 9. oinarrian ezarritakoarekin bat, interesdunek urtebeteko praktikaldia gaudituz behar dutela ezartzea behin betiko funtzionario izendatu ahal izateko. Izangaiak beren lanpostuaren jabetza behin-behinekoz hartzen duenean hasiko da praktikaldi hori.

Hiru.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila eta Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta interesdunei jakinaraz dakiela agintzea, izendatuek deialdiko lanpostuak har ditzaten, behin-behineko izendapen hau jakinarazten denetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 7an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	